



Helduen literatura | POESIA

Jet lag
Maite Toledo

Ediciones Beta, 2012.

Zorabioa

BIZITZAN izaten ditugun aldaketek uzten diguten zorabio igarokorra. Moldatzen da pertsona baina ez da lehengoa, hobe da, txarragoa da: jet-lag-ak jota dago. Eta Maite Toledok diosku bizitzea poesia dela, eta poesia bidaia bat: “Bizitzek, bidaiatzek bezalaxe, lehena, oraina eta geroa ditu. Bitzitzek hausturak eragiten dizkigu, erritmo berrietara egokiarazten. Era berean, bidaiatzek jet lag-a sortzen digu, gure arima ondorezik ibiltzen baita, harik eta helmuga berriko erritmora moldatzen garen arte”.

Lurreratze baten antzekoa izan da *Jet lag*, handik hortik eta hemendik zaldibiarri irakurritako txatalek bat egin duten lekua. Maite Toledok *Ametsaren aro berria* komiki-liburua argitaratu zuen 2005ean. Gaztelaniara, frantsesera, portugesez eta ingelesera itzuli, eta formatu digitalean argitaratu zuten 2010eko udaberrian. Baina 2012an liburu bi eman ditu argitara, eta hobeto ezagutu ahal izan dugu unibertso bat zabala, zeruz, hegazkinez eta mendiz osatua. *Jet Lag* olerki-liburua eta *Tekno + turismoa* saiakera etorri dira aurtengo 2012 honetan.

Batzutan minimalista, beste batzutan barruko giza ordokietara irekia, *Jet lag* hegazkin bateko leihoarekin lotuko duzu segituan: handik ikusten da guztia perspektibarekin baina, era berean, eskala horretan ez da ia ezer bereizten. Soilik zatiak, soilik, autoreak dioen legez, bakoitzak iragazi behar dituen sentazioak. Izan ere, irakurria diogu autoreari olerki hauek “bakoitzak bere erara bizitzekoak” landu dituela. Agian distantiek esan nahi du horrek, agian bokazio unibertslu dutela.

Dena dela, guztiongana iristeko asmo horretan, inozenteki idazten du Maite Toledok. Arima poetikoa xaloa du, leuna, gatz bakoa. Berak buruan izango ditu beharbada sentazio batzuk, kontatu beharra zerbait, baina iruditu zait ez dela liburu osoan zehar muinera egundo iristen. Uneka, txinpartaren bat? Hori ere ez, ordea. Zer edo zer transmititu behar du liburu batek zelanbait harrapa zaitzan, baina kasu honetan erritmo eta irudi lauso eta motelekin doa ez aurrera ez atzera diskurtsoa, inora heldu barik: “Munduari ez diot nik/ inoiz biribiltasun/ absoluturik igarri./ Ez pentsa, lurraren/ biribiltasunaren teoria/ ukatu nahian nabilenik./ Ilargira joan nahi dut,/ hura dakusadan eran/ lurra biribila dela ikusi,/ hodei ertzaren irris-tan/ erori; zuregana etorri”. Berba batean, ez nau hunkitu. ■

Igor Estankona



Frantziak badu bere Coppi

FRANTZIAKO TOURRA bost aldiz irabazi zuen lehendabiziko txirrindularia izan zen Jacques Anquetil (1934-1987). 1950eko hamarkadaren hasieran, *Monsieur Cronok* txiki utzi zituen Frantziak garai hartan zuen ziklista onenaren –Louis Bobeten– lorpenak. Bien arteko lehiak mintzo da Raul Perez Martinez donostiarra, baita Raymond Poulidor *Betiereko bigarrena* bezala ezaguna zen txirrindulariarekin zuen harremanaz ere. Ezin daiteke bietako bati buruz hitz egin bestea aipatu gabe. Errepidean etsai, lehiatik kanpo adiskide, halaxe bota zion hiltzorian zen Anquetilek Poulidorri, erietxera bisitan joan zitzaionean: “Mundu honetatik joateko tenorean ere, zu nire atzetik”.


Azaroaren 18an beteko dira 25 urte Anquetil hil zela, eta urteurren hori gogoran, haren euskarazko biografia plazaratu du Perezek, txirrindulari frantziarraren gaztarotik hasi eta erretiro osteko garaie-taraino. Tartearen, 1969ko Euskal Herriko Itzuliari buruzkoak, hura izan baitzen Anquetilek irabazi zuen sona handiko azken lasterketa. Arerio, entrenatzaile eta zaletuekin zuen harremana, dopin kontuak –bai, garai hartan ere matraka ederra ematen zuen gai horrek–, egindako parrandak eta kazetariak idatzitakoak dakartza besteak beste Perezek. Haietako batena da “Frantziak badu bere Coppi” goiburua, italiar handiaren pareko ziklista bazutela adierazteko erabili zuena.

Liburuaren hitzaurrea Txomin Perurena ziklista ohi eta EITBko esatariak idatzi du, eta epilogoak Anquetilekin tropelean ibili zen Luis Otaño erreteriarak. ■



Jon Torner

BIOGRAFIA



Jacques Anquetil.
Raul Perez Martinez

Autoedizioa, 2012.
110 orrialde.